



Ibai Gandiaga °

Usoa Fullaondo Azalaren egilea

Usoa Fullaondo artista EHuko Arte Ederretako irakaslea eta doktorea da; bere doktore-tesian sormen-prozesu ludikoetan zoriaren kontzeptua landu zuen. Hainbat sari eta beka jaso ditu, esate baterako: Bilbao Arten egoile-beka izan zuen, Injuve-n saritua, Ertibil-en birritan sailkatua izan da. Bere ekoizpenean, atzeranzko begirada bat sumatu daiteke, bai eta erabilitako objektu eta formei bizi berri bat emateko grina ere.

Gure gizartean gauzek ziklo mugatu bat dutela ematen du. Ez al dago bigarrenko aukerarik?

Badirudi iragankortasunaren garaian bizi garela. Dena azkarregi doa; dena moda dela ematen du. Inguratzen gaituen guztitik ez dakit zer izan daitekeen iraunkor. Baina XX. mendean ere aldaketa ugari jazo ziren; artean, esaterako, abangoardiak deritzegunak. Batak besteari jarraitzen zion, erreplika gisa askotan. Eta abangoardiak “berriaren” ideiarri ekin zioten. Bat-batean, postmodernitatea deritzogun hartan murgiltzean, ez zegoen zergatik ezer berririk sortu behar. Atzeranzko begirada berreskuratu genuen. Zorionez. Ondorioz, gaur, bigarren aukera sormenerako baliabide bihurtu da. Eta aurreko mendean galkorra zirudien hartatik zerbait berreskuratzen saiatzen garen asko gaude.

Zaharrak berri bihurtzeko, zaharren batuketa bat egitea nahikoa da?

Artearen esparruan, intentzioa erabakigarria dela uste dut. Horregatik, artistaren helburua batuketa besterik ez baldin bada, hori nahikoa izan daiteke. Hau da, gaur egun “dokumentazio” mailan geratzen den artelan ugari dago, zerbaiten aurkezpena egitea batzuetan nahikoa da. Beste batzuetan agian ez. *Collageak*, berez, zatien bateratzea darama, beraz, batuketa horrek guztiak unitate gisa funtzionatu beharra dauka, koherentzia bat izan behar du.



Ibai Gandiaga

Zer muga dago *vintage* eta *pastichearen* artean?

Galdera zaila iruditzen zait. Nik uste dut *vintage*-a benetako zerbait dela, hau da, antzinako objektu edo irudi baten aurkezpena eta, agian, eskuztatzea, ukitzea. *Pastichea*, bere aldetik, hainbat estiloren nahasketa da; *kitsch*-arekin erlaziona liteke. 60ko hamarkadako oihala zerbaitetarako erabiltzen baduzu, *vintage* zara, baina gaur egungo jantzi bat egiten baduzu, *pastichearekin* jolasteko arriskua daukazu... Oihal horren erreproduktzioa, egungo objektu batekin, zure familiaren argazkiekin eta plastikozko landare baten hostoarekin biltzen baduzu, *pastiche* bat egiten ari zara. Nahiz eta *vintage*-ak fama ona eta *pasticheak* fama txarra izan, biek funtziona dezakete nire ustez. Ni oso *pastiche*-zalea naiz.

Hortaz, estilo oro nahasgarria den garaia al dugu gurea?

Postmodernitateak datorkigun baliabidea da estilo anitzen nahasketa. Hala ere, gaur egun baliabide bat besterik ez dela uste dut. Puristak, “zerbaiti” fidelak zaizkionak ere badaude. Gazteen jantzeko eran antzeman daiteke; betiko “heavy”ak bertan jarraitzen du eta aldi berean, erdi-heavy, erdi-grunge eta erdi-diskotekeroa denak bere lekua ere badauka egungo gizartean.

Dena asmatua dagoela pentsatu behar dugu eta, hortaz, atzeranzko begiradak botatzera etsi behar dugu?

Egia esan ez dakit dena asmatuta dagoen eta ez nau asko arduratzen... Artearen eremuan agian ez naiz ezerekin asko harritzen. Baina musikarekin eta pelikulekin susto ederrak jasotzen ditut, onerako eta txarrerako. Ez dakit. Atzeranzko begirada betidanik funtsezkoa izan da niretzat. Horri, *vintage* eta *pastiche*-zale amorratua naizela gehitzen badiogu, niretzat baliabide gisa erabilgarria da. Baina hau nire aukera besterik ez da; eta pertsona beste aukera daudela kontuan hartzen badugu... Berririk ez, baina berezi, egon badago.

° Ibai Gandiaga arkitektoa da.

